



30. zEnbakiA
Esana aditu!!

Amaitzear da 2013. urtea, eta gure lagunek zenbait aholku eta arrasto emango dizkigute, gure hurrekin izango dugun harreman orekatuari begira. Hori horrela, honezkero entzuna izango duzue “gaurko haurrak, biharko helduak”, ezta? Gaur egun, inork ez du zalantzan jartzen haurtzaroak nolako garrantzia duen pertsona baten garapenean. Bizitzako lehen urteetan osatzen dugu nortasuna edo izaera, eta orduko garaiazen kalitateak baldintzatzen du, hein handi batean, helduaren sendotasuna edo ahulezia.

Beraz, kontuan izan irakurzaletasuna pizteko modurik aproposena dela hurrei txikitatik erakustea horretan; hau da, irakurketari bere lekutxo ematea gure egunerokoan. Ezinbestekoa da, besteak beste, liburuak, aldizkariak, egunkariak eta iragarkiak irakurtzea, manipulatzeko, horiekin jolasten uztea eta horien garrantzia azpimarratzea.

Ea baliagarri bezain dibertigarri zaizuen urte honetako azken aldizkariari erantsi diogun gida! Ondo bukatu eta hobeto hasi!

0. AZALA

Azala hartu aurretik, lainoan ageri den izenburua tapatuko dugu. Jarraian, haurra aurrean duzuela, irudia aztertzea proposatzen dizuegu. Horretarako, lagungarri egingen zaizue galdera batzuk egiten hastea, adibidez:

- Zergatik ote daude gure lagunak pozez txoratzen?
- Zergatik agertzen da gizonezkoa haserre?
- Irrien lagunekin haserretu ote da?
- Zergatik uste duzu?
- ...

Azala aztertu ondoren, aldizkariari izenburu bat asmatzea proposatzen dizuegu. Aldizkaria irakurritakoan, begira jatorrizko izenburuari. Ea antzik baduen!

Bestalde.. zer da beheko eskuin ertzean azaltzen den kuadrotxo hori? BERRIA! Ikus QR kodeen atzean dauden bideoak! Saiatuko gara pausuz pausu QR kodeari erabilera ematen? [Gurasoen laguntza]



30. zEnbakiA
Esana aditu!!

ZER EGIN BEHAR DUGU QR KODE HAUEK IRAKURTZEKO?

1. Android edo iOS (iPhone) sistema eragilea (ohikoenak) duen mugikor edo eta tableta behar duzu.
2. Gailu mugikorrean QR kode irakurgailua den aplikazioa instalatua behar duzu
3. Instalatua ez baduzu sartu Google Play (Androiden kasuan) edo eta Apple Store (iOS, iPhone) aplikazioetan eta egin “QR” testuarekin bilaketa bat, bertan hainbat aplikazio izango dituzu, doakoak ere.
4. Instalatu aplikazio gailu mugikorrean
5. Ireki aplikazioa, argazki kameraren antzeko itxura duen leihatila irekiko d
6. Jarri mugikorra aldizkari QR kodearen gainean mugitu gabe eta itxaron aplikazioak kodea irakurri /eskaneatu bitarte.
7. QR kodeak zure mugikorreko nabigatzailea irekiko du, kodeak gordea duen esteka irekiaz.
8. Egin aproba Gizakien Lurraren QR kodearekin, ikusiko duzu zein polita!

Aldizkari honetan 7 QR kode daude... ikusiko dugu zer dagoen hauen atzean?





30. ZENbakia
Esana aditu!!

1. GUREKIN JOLASTU NAHI?

Atal hau irakurtzeko, jolas bat proposatzen dizuegu; adi, beraz!

Letra larriz ikusten dituzuen hitzekin jolastu beharko duzue! Hitz horiek soilik erabili beharko dituzue, ados?

Nola? Bada, zuetariko batek hitz bat irakurri beharko du, eta besteak, berriz, hurrengo hitza. Hori bai: zeuek asmatu beharko duzue hitza nola irakurri! Nahi duzuen bezala irakurriko duzue: animalia bat imitatuz, soinu arraroak eginez...

Ekin, bada!

2. AURKIBIDEA

Laburpentxoan ageri den izenburua aurrean duzuela, egin iezazkiozu galdera batzuk. Galdera horiek haurrak aldizkarian ikusiko duena aurrez irudikatzeko balioko dute:

- Zer esan nahi ote du “esana aditu” esaerak?
- Zer dira “esanak”?
- Zerbait gertatzen da esanak aditzen ez direnean?
- ...

Galderekin amaitzean, galdetu haurrari nondik hasi nahi duen aldizkaria.

3. PUPU ETA LORE

Oraingo honetan ere, Pupu eta Lorek hausnartzeko parada bikaina eskaintzen digute. Gure proposamena hau da: hartu lauki bakoitza banan-banan, eta partekatu irakurritakoa.

Adibidez, hartu lehen laukitxoa eta irakurri nahi duzuen bezala: batera, banaka... Gero, bertan agertzen den galderari erantzun iezazue. Elkarri esan zer pentsatzen duzuen. Elkar gehiago ezagutzeko aukera bikaina izango da. Animatu!



30. zEnbAkia
Esana aditu!!

4. PIRRITX ETA PORROTX ETA MARIMOTOX

Gure lagun Pirritx Porrotx eta Marimototxen komikian murgiltzeko, hona hemen gure proposamena:

Zeuk irakurri istorioa haurrari, lasai eta intonazio egokiaz. Hark istorioa entzun, ulertu eta gozatu egin beharko du! Hori da gure helburua, behintzat.

Behin istorioa entzunda, haurraren txanda izango da! Proposatu haurrari hau: irakur ditzala irudietan agertzen diren elkarrizketak, eta, amaitzean, egin ieazkiozu galderatxo batzuk, istorioa ondo ulertu eta benetan gozatu duen ziurtatzeko. Erabili zure sormena galderak egiteko orduan! Eta ez ahaztu: “Beste batzuk inspiratzeko, zeure burua inspiratu beharko duzu aurrenik” Kayne Thorne.

5. OSASUNA GURE ONDASUNA

Atal honetan, hau egin dezakezue:

- Begiratu irudiari bion artean, eta komentatu agertzen diren ekintzak.
- Ondoren, goialdean dauden bi hitzak irakurri: “Arnasbide garbiak”.
- Galdetu haurrari ea hitz horiek zer iradokitzen dioten.
- Ez badu esanahia ulertzen, azaldu iezaiozu.
- Jarraian, begiratu berriz marrazkiari, eta galdetu zeintzuk iruditzen zaizkion arnasbide garbiak eta zeintzuk ez.
- Amaitzeko, eskatu haurrari osasuntsu bizitzeko Tiritatxoren aholkuak bere kabuz irakurri eta gustukoen duena aukeratzeko! Zergatik aukeratu duen galdetu.



30. ZENBakia
Esana aditu!!

6. ZENBATAK

Goserik bai? Hori da haurrari egingo diogun galdera. Galdera egindakoa, atal honetako jolasa azalduko diogu. Irakurtzen hasi aurretik, erabaki ezazue zein izango den irakurtzean jango duzuen bokala, adibidez, “o”. Horrela, irakurtzen hastean, ez duzue irakurri behar “o” bokala, ados?

Oso ondo pasatuko duzue!

7. DOZENAN 13

Istorio berbera irakurri aurretik, hau proposatzen dizugu:

- Marrazkiak ikusita, galdetu haurrari zeri buruz izango den istorioa.
- Animatu haurra marrazkian ikusten duena deskribatzera, ea zer dioen!
- Jarraian, eskatu leku lasai eta goxo batean esertzeko, eta esan istorioa zeuk irakurriko diozula.
- Istorioa irakurtzeko, begiak itxi beharko ditu haurrak. Gure ustez, horrela errazago murgilduko da istorioan.
- Irakur iezaiozu istorioa lasai eta intonazio misteriotsu eta goxoz.
- Istorioa amaitutakoan, animatu haurra irakurri diozunetik gehien gustatu zaion pasartea adieraztera. Galdetu zergatik aukeratu duen pasarte hori.
- Galdetu ea beste amaiera bat emango liokeen istorioari. Hala bada, animatu amaiera hori kontatzera!

8. OLIBATXO

Irakurri lasai-lasai Olibatxok oraingoan irakatsi nahi diguna. Amaitzean, irakurri berriro komikia, baina oraingoan arreta berezia jarriko dugu. Ondoren, garrantzitsuak iruditzen zaizkizuen hitzak orri batean idatziko dituzue; bakoitzak bereak, noski! Jarraian, hizki-zopa bat egingo duzue azpimarratutako hitzekin. Laguntza behar baduzue, lagundu elkar!

Ea gustatzen zaizuen!



30. zEnbakia
Esana aditu!!

9. EUSKARAREN ETXEA ETA LAGUNTZO BERRIA

Komiki honetan, euskalkien inguruan hitz egingo digute gure laguntxoek! Baliteke zure haurrak ez jakitea euskalkiak zer diren. Beraz, irakurtzen hasi aurretik, hau egin dezakezu:

- Komentatu haurrari euskalkien inguruan diharduela komiki honek.
- Galdetu ea badakien euskalkiak zer diren.
- Ez badaki, helaraz iezaiozu euskalkiak euskararen aldaera ezberdinak direla eta Euskal Herrian euskalki ezberdinak daudela. Adierazi haurrari gaiaren inguruan dakizun guztia eta nahi duzun eran. Erabili horretarako Interneteko bideoak, libururen bat... nahi duzuna!
- Gero, animatu haurra komikia irakurtzera. Nahi duen moduan irakur dezake.
- Komikia irakurritakoan, egin galdera hauek:
- Zer zen Luzien Bonaparte?
- Zer egin zuen?
- Zer ikasi zuen Marimototxek euskaltegian?
- Azkenik, jar iezaiozu Marimototxek ikasi zuen abestia Interneteko bideoaren batean, eta abestu ezazue bion artean!

10. ZIZAREA

Hil honetako animalia zizarea dugu. Haurraren interesa pizteko asmoz, teknika edo jolas dibertigarri bat proposatzen dizuegu:

- Lehenik eta behin, grabagailu batekin, zizarearen hotsa grabatu (zuk zeuk egina, Internetekoa...).
- Bigarren, zizarea marraztu eta moztu.
- Egun osoan, zizarearen hotsa jarri, haurra aurrean duzula (ezin da ohartu grabagailu bat dela!). Galde iezaiozu: "Entzun duzu hori? Zer ote da? Zuk badakizu?".



30. zEnbAkia
EsAnA aditu!!

- Beste egun batean, etxeko edo zaudeten lekuko sabaitik zintzilik jarri marraztu eta moztutako zizarea. Galdetu: Zer da hori? Zer egiten du sabaian zintzilik?...
- Amaitzeko, beste batean, zizarearen inguruko informazioa irakur dezakezue.

11. FILOSOFO TXIKIAK

Mokofinek hainbat galdera egiten ditu komikian, guztiz interesgarriak. Gure proposamena, komikia irakurri ondoren, honako hauek galdetzea da:

- 1. galdera: Obeditzeak libre izatea eragozten du?
- 2. galdera: Obeditzea nahi badugu, arriskuetatik babestea nahi dugu?
- 3. galdera: Handitzen garenean, libre izaten ikasten dugu?
- 4. galdera: Gurasoek denetik egiteko eskubidea dute?

12. MARTINBERTSO

Une oro bertsotan diharduen laguntxoarekin egin dugu topo oraingoan! Egingo dugu harekin bertsotan? Bada, ondo baderitzozue, bertsotan irakurriko dugu komikia!

Jarri gustukoen duzuen bertso melodia komikiari, eta irakurri bion artean melodia horrekin!

Gozatu istorioaz eta egin bertsotan! Ozenki eta argi!

13. LAGUN

Irudi edo marrazki batek arrasto ugari eman ditzake, eta, arrasto hauek jasotzeko, arretaz erreparatu behar diegu. Hona gure proposamena:

- Hartu komikia aurrean.
- Begiratu irudiei 10 segundoz.
- Jarraian, Lagun eta Porrotxi gertatzen zaiena idatziko duzue, bakoitzak bere orritxoan.
- Elkarri erakutsi idatzitakoa.
- Amaitzeko, irakurri komikia!

Ea antzik baduten!



30. zEnbakiA
Esana aditu!!

14. MARIKALANBRE

Komiki zoragarri hau irakurtzeko, ibilbide hau egin dezakezu haurrarekin:

Irakurtzen hasi aurretik, eta haurra istoriora gerturatzeko, hauxe galdetu ahal diozu:

- Zertan dihardute gure Marikalanbre eta amona Txinpartak?
- Zerbait kozinatzen ari direla dirudi... baina zer?
- Zer jartzen du istorioaren izenburuan?
- Krispetak zer diren badakizu? Irakur dezagun, zalantzak argitzeko!

Irakurri bion artean lasai (pertsonaia bakoitza batek irakurrita), eta bukatutakoan, hau galdetu:

- Zer dira krispetak?
- Prestatuko ditugu batzuk?

On egin!!!

15. LARGABISTA

Gehiago jolastu nahi? Hori da haurrari galdetuko dioguna, atal honetara iristean. Honetan datza jolasak:

- Helburua ezkutuko pistak aurkitzea da.
- Arrastoak hauek izan daitezke:
 - Kolore ezberdinak, A edo B letraz hasten diren hitzak aurkitzea...
- Horrez gain, mugak jarri beharko dituzue. Hitz kopurua, denbora...
- Amaitzeko, sari gisa, haurrak gustuko duen zerbaitetan jolastu ahal zarete.



30. zEnbakiA
Esana aditu!!

16. TXOKO TXIKI KUTTUNA

Obedientziaren inguruan dihardute hizketan gure laguntxoek. Poesia eta kantu polit eta interesgarriak ekarri dizkigute opari moduan! Hala ere, baliteke zure haurrak ez ulertzea guztiz esaldiren batzuk; horregatik, bion artean irakurtzea proposatzen dizuegu.

Zatitxo bakoitzaren amaieran, galdetu haurrari irakurritakoa ulertu duen eta gustatzen zaion. Ez ahaztu garrantzitsua dela motibaturik egotea; ez bada ari gustura irakurtzen, zerbait aldatu beharko duzu; irakurtzeko era, esaterako. Bestela, beste atalen bat irakurri beharko duzue, edo irakurtzeari utzi! Izan ere, burua eta bihotza ez dira beti egoten irakurtzeko gogoz!

17. MUNDUAK GUZTIONTZAT IZAN BEHARKO LUKE

Ane Pirata dugu protagonista oraingoan. Lagun berriein etorri zaigu, eta istorio polit askoa kontatzen digu komiki honetan. Irakurriko duzue komikia bion artean? Gozatu eta, irakurri ostean, erakutsi haurrari galdera hauek. Esaiozu berak egin beharko dizkizula zuri galderak.

Hona hemen haurrak zuri galdetzekoak:

- Zertan ari ziren neskak, Ane iristean?
- Nongoa da Ane Pirataren lagun berria?
- Zergatik etorri da Nogaye Euskal Herrira?
- Pozik al dago Nogaye? Zergatik?
- Zertan lagundu dio Nogayek Uxueri?

Galdera horiei erantzundakoan, eskuinaldean dagoen testutxoa irakurri beharko duzue. Zeuk irakur diezaiokezu haurrari. Gizakien Lurra erakundeak garatzen duen proiektu interesgarri eta baliagarriari buruz hitz egiten digu. Ziur asko, haurrak gogoz irakurriko du eskuinaldeko testua, Nogayeren istorioa irakurri ostean.